

PEDALEI ERAGITEKO LAGUNTZA DUTEN BIZIKLETAK, HIRIKO MOTAKOAK, EROSTEKO DIRULAGUNTZAK

2021

1. ARTIKULUA. XEDEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioaren arloan, “Pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak, hiriko motakoak, erostea” diruz laguntzeko lerroa deitu du.

Deialdiaren xedea da pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak, hiriko motakoak, erosteko dirulaguntzak ematea, eta, hala, mugikortasun iraunkorrari laguntzea, airearen kalitatea hobetzea, kutsadura akustikoa eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea eta energiaren kontsumoa gutxitzea. Hori guztia, 2019-2023 agintaldiko planaren 3. jarduketa-lerroan (garraioa, mugikortasuna eta irisgarritasuna) ezarritakoa betetzeko: 4) Urian bizikletaren erabilera sustatzea, bai eta Bilboko Udalaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoko helburu estrategikoen 12. helburua ere (ingurumen-jasangarritasunaren, mugikortasun iraunkorraren, irisgarritasunaren eta hiri-birsorkuntzaren aldeko apustua egitea, Bilboko garapen jasangarrirako oinarri gisa).

Diruz lagunduko da bizikleta berriak jabetzan eskuratzea.

2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako dirulaguntzak arau hauen pean daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsitako Erregelamendua; eta Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko entitate eta organismoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, 2016ko ekainaren 30ean Udalbatzarrak onetsitako ordenantza orokorraren bidez onetsiak (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2016ko uztailaren 20ko alean, 138. zenbakian).

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Bilbon erroldatuta dauden 18 urtetik gorako pertsona fisikoek jaso ahal izango dute dirulaguntza hau, baldin eta Bilboko udalerrian dagoen establezimendu batean pedalei eragiteko laguntza duen bizikleta bat, hiriko motakoa, erosten badute, 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko urriaren 30era bitartean.

Pedalei eragiteko laguntza duen bizikleta bat, hiriko motakoa da “Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan” jasotako ezaugarri teknikoak betetzen dituena eta fabrikatzaileak hirikoa, paseatzekoa edo city gisa sailkatzen duena. Kanpoan dauden kiroletako bizikletak (errepidekoa edo mendiko bizikleta), umeen bizikletak eta deialdiko baldintza teknikoak betetzen ez dituzten bizikletak:

- Motor elektrikoaren potentzia, 250 W edo txikiagoa
- Gutxi gorabeherako autonomia, 50 km
- Litio ioizko bateria, 36 V-ekoa eta gutxienez 9 Ah-ko edukierakoa

- Elikadura moztu egin behar da bizikleta orduko 25 km-ra iristen denean edo pedalei eragiteari uzten zaionean
- Azeleragailurik edo katurik gabe
- Koadro zurruna (esekidura bikoitzik gabe)
- Bizikleta tolesgarriak barne
- Atzeko eta aurreko argia
- Aurreko eta atzeko lohi-babes osoa, biak seriekoak
- Ahuntz-hankarekin edo astoarekin
- UNE-EN 15194:2018 araua betetzea. Asistentzia elektrikoa duten zikloak. EPA bizikletak

Ezingo dira onuradunak izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. Ataletan adierazitako debekuren baten eraginpean daudenak.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharra bete beharko dituzte.

Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, onuradunak bereziki egiaztatu behar du ez daukala zorrik zergen arloan eta Gizarte Segurantzari.

Deialdi honen onuradunek honako betebehar zehatzak bete behar dituzte:

- Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari bastidore zenbakia, eta bateriaren eta motorraren serie-zenbakia jakinaraztea.
- Diruz lagundutako ibilgailua ez zaie beste batzuei eskualdatuko bi urteko epean eta, epe horretan, onuradunak eskura edukiko du erabat.
- Bizikleta BiciRegistron (www.biciregistro.es) erregistratzea, doako modalitatean edo ordainpekoan.
- Bizikleta Bilbon hasi eta bukatzen diren joan-etorrietarako erabiltzea.

5. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK

1.- Deialdiko dirulaguntzak Bilboko Udalak 2021eko ekitaldirako onartutako aurrekontuaren 2021 21000 44120 7809900 – PEP 2021/00172 partidaren kargura finantzatzeko dira.

2.- Deialdi honetarako HOGEI MILA EURO (20.000) erabiliko dira.

3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, ez da laguntza gehiago emango harik eta aurrekontuan beste diru-hornidura bat baimendu arte; Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da hala gertatzen bada.

4.- Aurrekontuko hornidura handitu egin daiteke, aurkeztutako eskabideak ikusita, beste deialdirik egin barik.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1.- Laguntza honen zenbatekoak kontzeptu bat dauka:

- Pedalei eragiteko laguntza duen bizikleta, hiriko motakoa, erostea. BERREHUN (200) EURO, gehienez ere 1.500 euroko prezioa duen bizikleta bakoitzeko (BEZa kanpo), ez dira diruz lagunduko adierazitakoa baino prezio handiagoko bizikleta-erosketak.

2.- Onuradun bakoitzak gehienez bizikleta BATERAKO (1) eskatu dezake laguntza.

3.- Etxebizitza bakoitzean gehienez bizikleta BATERAKO (1) eskatu daiteke laguntza.

7. ARTIKULUA. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRIAK IZATEA

1.- Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, nazionala, Europar Batasuneko edo nazioarteko erankudeetakoa izan.

2.- Nolanahi ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diruz lagundutako ibilgailuaren kostua, nahiz berak bakarrik, nahiz beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

3.- Udal ebazpenaren ondoren, onuradunek beste administrazio publiko batzuek ematen dituzten dirulaguntzak jasotzen badituzte proiektu bererako, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, jakinarazpena jasotzen dutenetik hilabete baino lehenago.

8. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da Udalaren webgunean (www.bilbao.eus); Bilboko Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoan, San Agustin eraikinean; barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan; Bilboko Udalaren gardentasun atarian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.

Dirulaguntzak eskuratu nahi dituztenek, beraz, eskabidea (I. Eranskina) aurkeztu behar dute agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- b) Aurrekontua, Bilboko udalerrian kokatutako merkataritzako establezimendu batek egina, deialdian eskatzen diren marka, modelo eta betekizun teknikoekin.
- c) Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua onuradun izateko ezartzen dituen debekuetako bat ere ez duela adierazten duena. (II. Eranskina).
- d) Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzarekin eskuratutako bizikleta ez zaiela hirugarrenei eskualdatuko bi urteko epean eta, epe horretan, onuradunak eskura edukiko duela erabat, eta Bilbon hasi eta amaitzen diren joan-etorrietarako baino ez dela erabiliko adierazten duena. (II. Eranskina)
- e) Udalari berariaz emandako baimena, betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanari buruzko datuak biltzeko (II. Eranskina).

- f) Aurreko atalean aurreikusitako baimena ematen ez bada edo Udalak ezin badu lortu, zerga-zorrik eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak, zerga-administrazio eskudunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, hurrenez hurren, urte barruan emanak.
- g) “Hartzekodunen fitxa” behar bezala beteta eta bankuko kontuaren titulartasuna justifikatzen duen agiria (III. Eranskina).
- h) Eskatutako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena (IV. Eranskina).

2.- Eskaerak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein erataria bidal daitezke.

3.- Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea. Nolanahi ere, eta aurrekonturik dagoen edo ez kontuan hartu gabe, BAOn argitaratu eta hilabete bi izango dira eskaerak aurkezteko. Informazioa Udalaren webgunean ere eskuragarri dago (bilbao.eus), Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren informazioaren barruan.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA

1.- Dirulaguntzetarako deialdi honetarako gordetako aurrekontu-kreditua deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei banatuko zaie, 7. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera, eta aukera hori zabalik egongo da aurrekontuaren zuzkidura agortu bitartean.

Dirulaguntzak emateko lehentasun-hurrenkera eskabidea aurkeztu zen eguna eta ordua izango da, deialdian adierazitako dokumentazio guztiarekin batera; bestela, agiriren bat falta bada, eskatutako agiriak aurkeztu ziren eguna hartuko da kontuan.

2.- Prozedura bideratzeko eskumena duen organoa Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Garraioen Zuzendariordetzari lotutako langile teknikoek osatua izango da.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du, honako hauek ziurtatu ondoren:

- Onuradunak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela.
- Onuradunak ez daukala zorrik zergen arloan eta Gizarte Segurantzaren, eta ez duela tributuen arloko inolako zigorrak edo zorrik Udal honekin derrigorrezko aldiaren, salbu eta atzeratuta badago, zatikatuta badago edo betearazpena etenda badago.

3.- Gobernu Batzordeak ebatziko du prozedura.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik, edo dokumentuak zuzentzeko eskatu bada, horiek zuzenduta aurkezten direnetik zenbatzen hasita.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igaro ondoren, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahal izango da.

Eskatutako dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpenarekin amaitzen da administrazio-bidea.

Ebazpenaren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzien epaitegien artean dagokionaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

4.-Prozedura izapidetzeko eta ebazteko egintzak jakinarazpen pertsonalaren bidez jakinaraziko dira.

10. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren ordezkariak emango du onartutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena, eta onuradunari jakinaraziko zaio; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan bere izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua.

11. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Bizikleta 2021eko urriaren 31 baino lehen eskuratu beharko da, eta horren justifikazioa gehienez ere bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, erosketaren fakturaren egunetik, edota, ibilgailua adierazitako data baino lehenago eskuratu bada, dirulaguntza eman zaiola ziurtatzen duen jakinarazpenaren egunetik.

Dirulaguntza justifikatzeko, hauek aurkeztu behar dira:

- Marka, modeloa, bastidore-zenbakia, bateriaren eta motorraren serie-zenbakia eta deialdian eskatutako baldintzak dituen faktura (fakturan agertzen ez badira, erositako modeloak derrigorrezko ezaugarriak dituela dioen ziurtagiri edo fitxa teknikoa eskatu behar zaio dendari).
- Bizikletaren BiciRegistro-ko erregistroa (www.biciregistro.es), doako modalitatean edo ordainpekoan.
- Eskatutako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena (IV. Eranskina).

12. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira pedalei eragiteko laguntza duen bizikleta erosteko gastuak, BEZa salbu, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 31.8 artikuluan adierazitakoaren arabera.

13. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA

Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, edo deialdi honetan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkutatzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, dirulaguntza jasotzen den unetik aurrera.

Emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da ez badira betetzen dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako betebeharretakoren bat edo batzuk, edo Dirulaguntzak emateko Oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorraren 19. artikuluan aurreikusitakoak, 38/2003 Legearen 37. artikularekin lotuta (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra).

14. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak argitaratuko dira udalaren web-orrian.

Era berean, dirulaguntzen publizitatea egingo da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez, Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2021eko apirilaren 6an